



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Idatzitik ahozkoa: Euskal ipuingintza egungo liburuetan

2015eko azaroak 18 eta 25

Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia

Sarrera

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu ziren iaz. Bigarren edizio hau ere Mintzola Fundazioaren Elkargunearen baitan, euskal ahozko sorkuntzen inguruan, antolatu da: laz euskal antzerkigintzaren dokumentazio beharrekin egin zen bezala, aurten haurrentzako euskarazko ipuingintzaren argitalpenak aztertu eta ahozko kontaketarako baliabide bezala eskaintzen diren aukerak plazaratu nahi dira.

Idatzitik ahozkoa: Euskal ipuingintza egungo liburuetan

2015eko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldietan gaur egun argitaratuta dauden haurrentzako liburuetan euskal tradiziozko ipuinek eta ipuin unibertsalek duten egoera aztertu nahi da, bereziki ahoz kontatzeko eskaintzen dituzten baliabideei erreparatuz.

Jardunaldiotan landuko diren gaiak eta gogoetak udal liburutegietako nahiz eskola liburutegietako arduradunentzat interesgarriak izateaz gain, ipuin-kontalari edo ipuingileentzat, eta arlo honetan dabilzan editore eta itzultzaileentzat ere baliagarriak izatea nahi da.

Antolatzaileak

2015ko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak Mintzola Fundazioa, Tolosako Udal Liburutegia, eta Koldo Mitxelena Liburutegia dira. Elkarre hauen laguntza izan dute jardunaldiek: Galtzagorri Elkartea; Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea (ALDEE) eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea.

Antolatzaileak

 Mintzola Fundazioa	 Tolosako Udal Liburutegia	 Koldo Mitxelena Liburutegia
Laguntzaileak		
 Galtzagorri Elkartea		



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Idatzitik ahozkoa: Euskal tradiziozko ipuinak liburuetan

Azaroak 18, asteazkena.

Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia.

10:00 - 13:30

Kontatzeko moduko ipuinak al dira?

Ipuina bera eta euskal tradiziozko ipuingintza zer den kokatu ondoren, gaur egun haurrentzako argitaratuta dauden euskal tradiziozko ipuin-liburuen egoera aztertuko da ikuspuntu ezberdinetatik, baina bereziki ahoz kontatzeko baliabideei erreparatuz.

- 📍 10:00 --- ***Zer da ipuin bat? Tradiziozko euskal ipuingintzaren garrantzia gaur egun***
Itziar Rekalde Luzarraga. Ipuin kontalaria eta euskal tradiziozko ipuingintzan aritua.
- 📍 10:30 --- ***Kontatzeko moduko euskal tradiziozko ipuin ezezagun horiek... liburutegietarako oinarrizko funtsa***
Xabier Etxaniz Erle. EHUko irakaslea, idazlea eta euskal haur eta gazte literaturan aditua.

Atsedenaldia

- 📍 11:30 --- ***Idatzitik ahozkoa: Euskal tradiziozko ipuinen kontaketarako baliabideak (hitzaldi-kontaketa)***
Pello Añorga Lopez. Ipuin kontalaria eta idazlea.
- 📍 12:30 --- ***Mahai-ingurua***
Itziar Rekalde, Xabier Etxaniz eta Pello Añorga.

Argibide gehiago:

Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Mintzola Fundazioa

www.mintzola.eus :: xenpelar@bertsozale.eus :: Telefonoa: +34 943 693 870 / +34 943 694 277

Jardunaldiak doakoak dira eta interesa duen edozeinentzat zabalik daude.



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Idatzitik ahozkoa: Itzulitako ipuin unibertsalak liburuetan

Azaroak 25, asteazkena.

Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia.

10:00 - 13:30

Kontatzeko moduko euskarazko bertsoak al ditugu?

Gaur egun argitaratuta dauden haurrentzako liburuen artean ipuin unibertsalek duten egoera aztertuko da ikuspuntu ezberdinetatik, baina bereziki ahoz kontatzeko baliabideei erreparatuz.

- 📍 10:00 --- **Haratagokoak gureratuz: Ipuin unibertsalen itzulpenaren egoeraz**
Manu Lopez Gaseni. EHUko irakaslea, haur eta gazte literaturan aditua; idazlea eta itzultzailea.
- 📍 10:30 --- **Ahozko baliabideak ipuin unibertsalak itzultzean: esperientzia bat**
Patxi Zubizarreta Dorronsoro. Idazlea, itzultzailea eta haur literaturan aditua.
- 📍 10:45 --- **Kontatzeko moduko ipuinak: itzulitako ipuinak argitaratzeari buruzko esperientziak**
Aines Dufau Lakaberatz. Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuko zuzendaria.

Atsedenaldia

- 📍 11:30 --- **Idatzitik ahozkoa: Euskaraz argitaratutako ipuin klasikoek kontaketarako baliabideak (hitzaldi-irakurketa)**
Bego Alabazan. Ipuin kontalaria.
- 📍 12:30 --- **Mahai-ingurua**
Manu Lopez, Patxi Zubizarreta, Aines Dufau eta Bego Alabazan.

Argibide gehiago:

Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Mintzola Fundazioa

www.mintzola.eus :: xenpelar@bertsozale.eus :: Telefonoa: +34 943 693 870 / +34 943 694 277

Jardunaldiak doakoak dira eta interesa duen edozeinentzat zabalik daude.